

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAREN 2009-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Amorebieta-Etxanoko Udalaren 2009ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazio kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasunaren atalean, Epaitegiak udalaren eta erakunde autonomoen jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Honela, bada, HKEEk jakinarazi du Ametx Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Erakunde Autonomoko aldi baterako langile bat, 2009ko abenduaren 31ra arte kontratua indarrean zuenak, hasiera batean 2008an Eusko Jaurlaritzako enplegu programak oinarri hartuta kontratatu zutela eta gerora, obra edo zerbitzu jakina egiteko, inongo hautaketa-prozesurik baliatu gabe.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak 2006an eta bi urte luzagarriko etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea xede zuen espedientea esleitu zuela; 2009ko ekitaldian luzapen aldian egikaritutako zenbatekoa 742 mila eurokoa izan da, gehiengo aurrekontua bikoiztuz; horrek lehia desitxuratzen du eta ez da kontratu-aldaketa bideratu edo lehiaketa berri bat sustatu.

Berebat, hiru zerbitzu kontratutan –indarraldia 2008an amaitzen zitzaiena eta 2009an 2.149 mila euroko kostu bateratua izan zutenak- esleipena publizitate eta lehia printzipioei meneratutako prozesu berrien bitartez lehiatu behar zatekeen.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 0,9 mila euroan murriztu dutenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu eta kontabilitate, sarrera fiskal, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Azkenik esan, finantza egoerari dagokionez, 2007-2009 aldian Udalak gauzatutako inbertsioak finantzatu dituela % 30ean beste Administrazio Publiko batzuetatik eratorritako diru-laguntzen bidez, inbertsioak besterentzetik eratorritako diru-sarrerekin eta aurrezki garbiekin, eta gainerakoa, Diruzaintza Geldikinarekin. Udalaren etorkizuneko inbertsio gaitasuna beste Administrazio Publiko batzuetatik kanpo finantzaketa lortzeko ahaleginari eta aurrezki garbiak behera egin izanaren ondorioz, zorpetzetik eratorritako baliabideak eskuratzeari meneratua dago.